

CÈLIA VILA

«Umiliatuak izateaz nekatuta, euren eskubideak aldarrikatzeko batzen dira dokumentaleko emakumeak»

Yamuna ehungintzako langilea da Indian. Urtebete darama lanik egin gabe, greba egiten saiatzeagatik. Egunero lantegira joan eta zortzi ordu pasatzen ditu bertan; soldata kobratzen du, baina lan egitea debekatu diote. Enpresak ez du kaleratu nahi, eta bera ezin da joan. Izan ere, badaki inguruko enpresek ez dutela kontratatuko, nagusiak horretaz arduratu baitira. *Les costures de la pell* (Azaleko josturak) dokumental katalanak jaso dituen historietako bat da.

| JUDITH PEREZ |

SEI HILABETE eman dituzte Cèlia Vila eta Enric Escofet-ek Indian, eta horren emaitza da *Les costures de la pell*. No Dust Films kolektiboko gainerako kideekin batera (Marina Estopiñan, Marc Soler eta Eduard Valls), dokumentalaren muntaketa bukatzen ari dira eta udazken honetan mikrofinantzazio kanpaina jarriko dute martxan, filma ahalik eta leku gehienetara eramateko helburuz. Baldintza kaskarretan, baina borrokatzeari uko egin gabe, arroparen industria erraldoiarentzat josten duten Indiako emakumez hitz egin dugu Cèlia Vilarekin.

Zer dela eta erabaki zenuen Indiara joatea?

Duela ia bi urte, multinazionalak ikertzen dituen SOMO erakundearen *Captured by Cotton* txostena iritsi zitzaigun eskuetara, kasualitatez. India hegoaldeko milaka emakumek ehungintzaren industriarentzat lan egiten pairatzen duten egoeraren berri ematen zuen: ez dute mugimendu askatasunik, ezin dira beren familiarekin kontaktuan jarri, lanaldi amaigabeak bete behar dituzte eta fabriketako begiraleen partetik hamaika gehiegikeria jasaten dituzte. Txosten horrek biziki hunkitu gintuen; emakume horiek infernu bat bizi dute, guk erosi eta jantziko dugun arropa egiten. Askok pentsatu gabe, euren borrokarekin bat egitea erabaki genuen. Oinarrizko ekipamen-

du teknikoa bildu eta Indiara joan ginen dokumentala grabatzera.

Zer ikusiko dugu dokumentalean?

Sei hilabete pasa ditugu langileekin India hegoaldean, eurekin bizitzen. Dokumentalak emakume hauen sufrimendua eta jasaten duten diskriminazioa erakusten du, baina baita euren ausardia, indarra eta gauzak aldatzeko gogoia ere.

Egiten dugun erosketa bakoitzak ondorio larriak ditu lan esklabotzan, eta hori ez da bidezkoa. *Les costures de la pelle* horretaz ohartzeko balio izatea espero dugu. Hala ere,

ez dugu bilatzen ezer irakastea, edo irudi eztabaia daezinak sortzea, ikuslearen gogoeta baizik. Haien mezua ahalik eta modu zintzoenean transmititzen saiatu gara.

Gogorra da Indiako jostenen egoera.

Diskriminazio hirukoitza jasaten dute: soziala, ekonomikoa eta generozkoa. Pobreak dira, askok ez dute ikasketarik, ezta baliabiderik ere, eta egunero ehunka arropa pieza egiten dituzte oso soldata eskasaren truke. Produktzio oso altua exijitzen diete, eta batzuek astero 60 orduko lanaldiak bete behar dituzte, 10 ordu egunero. Atsedena hartzeko tarteak oso laburrak dira: ordu erdi bazkaltzeko eta hiru minutu tea hartzeko. Patronalak, gainera, abusatu

“Emakume horiek infernu bat bizi dute, guk erosi eta jantziko dugun arropa egiten. Dokumentalak jasaten duten diskriminazioa erakusten du, baina baita euren ausardia, indarra eta gauzak aldatzeko gogoia ere”



Goiko irudian, ehungintza fabrika bateko langileak greban. Eskuineko argazkian, jostunak lantegitik ateratzen.

egiten du: soldatak nahi dutenean murrizten dituzte, eta ez dizkiete aparteko lanorduak ordaintzen. Are gehiago, langileek euren lanalditik kanpo lan egiteari uko egiten badiote ez dute soldata jasotzen. Begiraleen partetik tratatu txar fisiko eta psikologikoak jasaten dituzte, ekonomikoki marjinatzen dituzte eta ez dute ia denborarik euren seme-alabekin egoteko. Askok aitortu digute aukera izan balute ez zuketela seme-alabarik izango, ama ona izatea ezinezkoa zaiela uste dutelako. Eta oso argi utzi digute euren egoera ez dela soilik lan baldintza prekarioen ondorio; gizarteak beti tratatu ditu gaizki. Senarren jarrerari buruz etsipenez hitz egiten dute, eta askok tratatu txarrak eta sexu-erasoak jasan dituzte fabriketako begiraleengandik, medikuengandik... eta askatasuna merezi ez dutela pentsatzen duten gizonengandik.

Nola lortu zenuten emakume horiengana iristea?

Indiara iritsi ginenean gure kontaktu bakarra Civedep izeneko Gobernu Kanpoko Erakundea zen. Bangalore-n aritzen dira, langileak eta komunitateak ahalduntzen eta enpresek giza eskubideak betetzen dituztela



bermatzen. Haiek eman ziguten Garment Labour Union (GLU) ekimenaren berri. Emakumeek osatu eta zuzendutako ehungintza sindikatua da GLU, eta langileen baldintzak hobetzea du helburu. Sindikatu horri esker ezagutu genituen gure dokumentaleko protagonistak: umiliatuak izateaz nekatuta, euren eskubideak aldarrikatzeko batzen diren emakumeak. Ez dute baliabiderik, ezta laguntzarik ere, baina beldur gabe borrokatzen dute, euren egoera hobetzeko.



“Kostuaren murrizketa nola lortzen dute multinazionalak? Lan baldintza prekarioak ezarriz eta lana ‘feminizatuz’. Emakumeak ‘lasaiagoak’, ‘fidelagoak’, ‘diziplinatuagoak’ eta, azken finean, ‘merkeagoak’ dira”

Hasieran arreta eta zuhertasun handiz jokatu zuten gurekin. Izan ere, beren alde dagoen norbait aurkitzea ez da ohikoena. GLUko bulegoan bizitzea eskaini ziguten, beraiek bizi diren eta lan egiten duten auzo berean. Gertutasun horrek asko erraztu zuen gainerakoa eta egunez egun elkarrenganako konfiantza sendotu genuen. Emakume hauen indarra eta egoera aldatzeko gogoia ezusteko oso atsegina izan zen.

Lan baldintza prekarioez gain, beraz, emakume hauen eskubideen aldeko borroka ere jorratu duzue dokumentalean.



Hasiera batean, sindikatua aipatu baino ez genuen egin behar. Baina iritsi ginenean emakume hauen antolatzeko ahalmena eta grina ikusi genituen. Aktibismoak garrantzi handia du beraien bizitzan, eta ondorioz, hala islatu behar zen dokumentalean ere. GLU sindikatuak prestakuntza jardunaldiak egiten ditu, lan zuzenbidearen inguruan. Eskubideak nola aldarrikatu azaltzen diete langileei, abokatuen eta aktibisten laguntzarekin. Sexu eraso zer den eta nola saihestu, zeintzuk diren enpresak legez eskaini behar dizkien zerbitzuak, zer egin behar duten horiek eskura izateko...

Oro har, Indiako gizarteak ez du ongi ikusten emakumeak beren kabuz antolatzea, baina gauzak aldatzeko borondateak ematen die indarra egunerokoan. Jardunaldiek, gainera, elkarrekin harremanak eratzeke balio dute, baita dituzten baliabideak modu eraginkorrean kudeatzeko mekanismoak sortzeko ere.

Horren guztiaren jakitun al gara mendebalदारrok? Ehungintzan gertatu izan diren istripu larrien





Ezker-eskuin: Yamuna, dokumentaleko protagonistetako bat, *self-help-group* delako bileran; Cèlia Vila filmeko ko-zuzendaria Suhasini langilearen testigantza jasotzen; Enric Escofet ko-zuzendaria Bangladesheko kaleetan grabatzen; eta No Dust Films-eko kideetako lau: Marc Soler, Cèlia Vila, Enric Escofet eta Eduard Valls.

ondorioz, langileen lan baldintzak munduan soberan ezagunak dira. Baina bidegabekeria horien aurrean gizartearentzat askoz erosoagoa da ezikusiaarena egitea, ez baitiogu ezeri uko egin nahi. Sarri, alde handia dago “jakinaren gainean egotearen” eta “enpatizatzearen” artean.

Zergatik mantentzen dira halako lan baldintzak XXI. mendean?

Arazoa ez da lan baldintza horiek mantentzen direla, egunez egun okerragoak direla baizik. Merkatuan lehiakorrek izateko, ehungintzaren industriako ekoizleek produkzio kostua murriztu behar dute eta produkzio kostuaren zatirik handiena langileria da. Hortaz, kostuaren murrizketa nola lortzen dute? Lan baldintza prekarioak ezarri eta lana “feminizatuz”. Emakumeak “lasaiagoak”, “fidelagoak”, “diziplinatuagoak” eta, azken finean, “merkeagoak” dira.

Eta guk, kontsumitzaile bezala, zer egin deza-kegu?

Kontsumitzaileok ez gara egoera honen arduradun bakarrak, baina azken muturrean gu gara produktua ordaintzen dugunak eta nolabait produkzio sistema hau bizirik mantentzen dugunak. Modan dagoen arroparen bila bizi gara, momentuan izan nahi dugu eta ahalik eta prezio txikiena ordaindu, kontuan hartu gabe arropa hori egin duenak are gutxiago irabazten duela. Prezio baxuegiko produktuei “ez” esaten ikasi behar dugu, prezio baxuko produktua kalitate baxuko bizitza delako, egin duen pertsonarentzat. Kontsumitzaile gisa zer, noiz eta non erosi nahi dugun eta zer erabilerara emango diogun erabakitze-ko ahalmena dugu. Kontsumo arduratsua egitea giltzarria da mundu bidezkoagoa eraikitzen laguntzeko. ■



Xapoa

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermín Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com